# Editorial

# *Editoriala*



*Ignacio Díez López*

Querido lector y compañero de la Sociedad Vasco-Navarra de Pediatría:

COVID, COVID y COVID…

Hace tan solo un año, cuando ojeábamos el anterior Boletín, nadie podría imaginar el cambio que en nuestras vidas, profesionales y personales, tan solo una palabra, COVID, podría llegar a suponer…

Mis primeras palabras son, sin duda, para desearte que tú y los tuyos estéis bien, y lamentar las posibles pérdidas humanas que hayas podido vivir en tu entorno.

Un sincero abrazo a todos.

Debates previos en torno a cómo debe ser el proceso de selección y provisión de nuevos pediatras, la incertidumbre que genera la estrategia de Atención Primaria, el reconocimiento insuficiente de las subespecialidades pediátricas, la cartera de servicios, la falta de recursos humanos (pediatras), sobre todo (aunque no exclusivamente) en Atención Primaria, la (re) distribución de los mismos… Parece que han quedado relegados a un segundo plano… Los pediatras hemos estado este año 2020 donde se nos ha requerido, reforzando puestos, acudiendo desde el Hospital a la AP, atendiendo hoteles medicalizados, asistiendo equipos COVID adultos… Y al mismo tiempo sin olvidarnos de "nuestros pequeños clientes"; en primer lugar desde la preocupación de cómo se verían afectados por la COVID, en segundo lugar desde la inquietud de ver cómo se relegaban en los momentos más críticos las actividades típicamente pediátricas (vacunaciones, revisiones, controles, seguimientos…) en aras de otras demandas y tras los momentos álgidos de la crisis reclamando recuperar el espacio perdido en el cuidado de la salud infantil…



*Irakurle eta Euskal Herriko Pediatria Elkarteko kide agurgarria:*

*COVID, COVID eta COVID…*

*Duela urtebete besterik ez, aurreko aldizkaria irakurtzen ari ginela, inork ere ez zuen imajinatuko nolako aldaketa ekarriko zuen gure bizitza profesionalera eta pertsonalera hitz bakar batek: COVIDak.*

*Nire lehen hitzak, nola ez, zu eta zure familiakoak ondo egotea opatzeko dira, bai eta zure inguruan izan zenitzakeen galerengatik doluminak adierazteko ere.*

*Besarkada bero bat guztioi.*

*Pediatra berriak hautatzeko eta haietaz hornitzeko prozesuari buruzko eztabaidak; Lehen Mailako Arretako Estrategiak sortzen duen ziurgabetasuna; pediatriako azpiespezialitateen aintzatespen eskasa; zerbitzu-zorroa; giza baliabiderik eza (pediatrak), batez ere (baina ez soilik) Lehen Mailako Arretan; giza baliabide horien (bir)banaketa… Ematen du gai horiek guztiak bigarren mailan geratu direla. Behar gintuzten lekuetan egon gara pediatrok 2020. urtean: lanpostuak indartzen, ospitaletik lehen mailako arretara joaten, hotel medikalizatuetan arreta ematen, COVID-19aren aurkako helduentzako ekipamenduetan laguntzen… Eta, aldi berean, «gure bezero txikiak» ahaztu gabe: batetik, kezkati, COVID-19ak haurrei nola erasango ote zien; bestetik, urduri, unerik kritikoenetan, beste eskari batzuei erantzun behar zitzaienez, ohiko jardunbide pediatrikoak (txertoak, azterketak, kontrolak, jarraipenak…) baztertzen ari zirela ikusita; eta, krisiaren une gorenen ostean, haurren osasuna zaintzeko galdutako espazioa berreskuratu nahian.*

*Hilabete hauetan lankide askori entzun diedan kexua partekatu nahi dut zuekin: «Ez gara kexatzen, ezta gutxiago ere, beste zerbitzu batzuetan lagundu behar izanagatik; horixe egin*

He oído estos meses a muchos compañeros un lamento, que comparto y os hago partícipes: "no nos quejamos, ni mucho menos de haber estado arrimando el hombro, es lo que tocaba; sino de que, en ocasiones, la salud infantil (psíquica y física) pudo verse mermada por este rodillo de la COVID, y no todo es ni será este dichoso virus"… Ningún pediatra quiere imaginarse un escenario donde la COVID hubiera golpeado con saña a la infancia, a los lactantes como hace el VRS cada otoño/invierno, en vez de al grupo de nuestros mayores… ¿Hubiera tenido capacidad de respuesta la "medicina de adultos" de haber respondido a este escenario de apocalipsis pediátrica?

Es por todo ello, y a mi entender, que se hace más necesario que nunca luchar por nuestro papel en el sistema sanitario como garantes de la salud infantil.

Aunque la COVID no nos ha permitido juntarnos para nuestros habituales encuentros científicos, la Sociedad ha seguido viva. Prueba de ello es la reunión telemática de noviembre en Pamplona con más de 150 participantes y que este número recoge sus resúmenes; y asimismo, los múltiples trabajos originales, casos clínicos y revisiones que los socios nos hacen llegar con la acostumbrada calidad científica, que hace de este número el más extenso en material científico de la Historia de la SVNP y del Boletín.

¡La Sociedad Vasco Navarra de Pediatría está hoy más viva que nunca!

¡Gracias a todos por el trabajo y el esfuerzo!

Esperando que este número sea de tu agrado.

A todos un saludo.

**Ignacio Díez**
*Director del Boletín*

*behar genuen, eta kito. COVID-19aren astinduak une batzuetan haurren osasun psikikoan eta fisikoan eragin kaltegarria izan zezakeelako kexatzen gara, dena ez baita eta ez baita da izango ditxosozko birus hori». Pediatra batek ere ez du imajinatu nahi zer gertatuko zen COVID-19ak, adinekoei erasan beharrean, haurrengan eragin bortitza izan balu, arnas birus sintzitialak udazken edo negu bakoitzean egiten duen bezala. Erantzuteko gaitasunik izango ote zuen «helduen medikuntzak» apokalipsi pediatrikoaren balizko agertoki horretan?*

*Esanak esan, nire ustez, inoiz baino beharrezkoagoa da haurren osasunaren zaintzaile gisa osasun-sisteman dugun zereginaren alde borrokatzea.*

*COVID-19aren ondorioz gure ohiko zientzia-topaketen inguruan elkartzerik izan ez badugu ere, Elkarteak bizirik jarraitzen du. Horren erakusgarri dira, lehenik, joan den azaroan Iruñean egindako bilera telematikoa: 150 profesionalek baino gehiagok hartu zuten parte, eta zenbaki honetan bertan dituzue topaketen laburpenak eskuragarri; bigarrenik, bazkideek ohiko kalitate zientifikoarekin helarazten dizkiguten lan originalak, kasu klinikoak eta berrikuspenak.*

*¡Euskal Herriko Pediatria Elkartea inoiz baino biziago dago gaur egun!*

*¡Eskerrik asko denoi egindako ahaleginagatik!*

*Espero dut zenbaki hau zure gustukoa izatea.*

*Agur bero bat denoi.*

**Ignacio Díez**
*Buletinaren zuzendaria*